

|   |  |
|---|--|
| Modèle CCYC : ©DNE  |  |
| <b>Nom de famille (naissance) :</b>   |  |
| (Suivi s'il y a lieu, du nom d'usage)   |  |
| <b>Prénom(s) :</b>  |  |
| <b>N° candidat :</b>  |  |
| (Les numéros figurent sur la convocation.)  |  |
| <b>Né(e) le :</b>   |  |
| N° d'inscription : <input type="text"/>   |  |
|  |  |
| 1.1   |  |

## Évaluation

**CLASSE :** Première

**voie :**  Générale  Technologique  Toutes voies (LV)

**ENSEIGNEMENT :** Basque

**DURÉE DE L'ÉPREUVE :** 1h30

Niveaux visés (LV) : LVA **B1-B2**                    LVB **A2-B1**

Axes de programme :**Axe 1 « identités et échanges »**

**CALCULATRICE AUTORISÉE :**  Oui  Non

**DICTIONNAIRE AUTORISÉ :**  Oui  Non

- Ce sujet contient des parties à rendre par le candidat avec sa copie. De ce fait, il ne peut être dupliqué et doit être imprimé pour chaque candidat afin d'assurer ensuite sa bonne numérisation.
- Ce sujet intègre des éléments en couleur. S'il est choisi par l'équipe pédagogique, il est nécessaire que chaque élève dispose d'une impression en couleur.
- Ce sujet contient des pièces jointes de type audio ou vidéo qu'il faudra télécharger et jouer le jour de l'épreuve.

**Nombre total de pages :** 4

## Baccalauréat général et technologique

### Classe de première

#### Compréhension de l'écrit et expression écrite

(3<sup>e</sup> trimestre)

| <u>Niveau visé</u> | <u>Durée de l'épreuve</u> | <u>Barème 20 points</u>          |
|--------------------|---------------------------|----------------------------------|
| LVB : A2-B1        | 1 h 30                    | CE : 10 points<br>EE : 10 points |

L'ensemble du sujet porte sur **l'axe 1** du programme «**Identités et échanges**».

Il s'organise en deux parties :

1. **Compréhension de l'écrit**
2. **Expression écrite**

#### 1. Compréhension de l'écrit (10 points)

**Titre du document : Ane Irazabal, korrespontsala: “Pateran iritsitako neskato bat Italiako lehen ministro izendatu dutela kontatu nahiko nuke”**

Zer kontatzen du pasarte honek? Nolaz lot daiteke “Nortasuna eta trukaketak” ardatzarekin?

## 2. Expression écrite (10 points)

Ondoko bi gaietarik **bat** garatuko duzu euskaraz, 12 bat lerrotan.

### Sujet A

Txinara joan zara kazetari freelance modura. Hurbilekoei idazten diezu, esperientzia kontatuz.

### Sujet B

Prentsak Mediterraneoko etorkinez ematen duen irudiak hunkitzen ote zaitu?  
Zergatik?

### DOCUMENT

Ane Irazabal, korrespondentsala: “Pateran iritsitako neskato bat Italiako lehen ministro izendatu dutela kontatu nahiko nuke”

Ane Irazabal Elkorobarrutia (Arrasate, 1984) kazetaria aspalditik bizi da Euskal Herritik kanpo. 2010. urtean, Historiako eta Ikus-entzunezkoetako ikasketak amaitu zituenean, Palestinara joatea erabaki zuen kazetari freelance izateko. Ordutik, Egipton, Gazan, Libanon eta beste hainbat lekutan egon ostean, Italian bizi da egun. Iheslarien egoeraren berri ematen du handik, EITBko korrespondentsala baita. Save the Children elkarteak Bilbon kongresu batean parte hartzena gonbidatu duela aprobetxatu dugu berarekin tartetxo bat igarotzeko.

1. Ikasketak amaitu eta kazetari freelance joan zinen Palestinara. Nolako esperientzia izan zen hura?

2010. urtean ikasketak amaitu nituenean, hemengo egoera ekonomikoa ez zen

oso ona, eta nazioarteko politika gustatzen zitzaidanez Israel eta Palestinaren arteko gatazkak jakin-mina sortu zidan. Ez neukan ezer galtzeko, ilusio handia nuen, eta, motxila bizkarrean hartuta, Palestinara joan nintzen. Hastapenak ez ziren errazak izan, hasiera guztiak bezala: kultura berri bat, toki ezezaguna eta dinamika berrietara egokitutako behar izan nuen. Hala ere, oso polita izan zen. Palestinarrak oso abegitsuak dira eta erraztasun guztiak eman zizkidaten. Nire ibilbide profesionala horrela hasi zen.

2. Gazan, adibidez, kazetari asko batera bizi zineten. Bazuten euskaldunon berri? Nolakoa izan zen elkarbizitza hura?

Nazioarteko kazetariekin aske bidaiatzen dute eta, hainbat arrazoi tarteko, ezagutzen dute Euskal Herria: batzuk Euskal Herriak izan duen historia politikoagatik; beste batzuek surfa gustatzen zaielako eta horretara etortzen direlako; beste batzuek musikagatik... Harremana oso polita izan zen. Nire lagun batek esaten duen bezala, Babelgo dorre antzerako bat osatzen genuen, eraikinak sei edo zazpi solairu zituen eta esatari bakoitza herrialde batekoa zen: italiarrak, poloniarrak, estatubatuarrak, frantziarrak, txinatarra, japoniarra... Beraz, imajinatu zenbat hizkuntza! Denok freelanceak ginen eta oso harreman ona genuen.

3. Orain, Italian, errefuxiatuen egoera ari zara ikusten bertatik bertara. Zer ari da gertatzen?

Matteo Salvini Italiako Barne ministroak migrazioaren aurkako politika ezarri du, eta, hori gauzatzeko, hainbat neurri hartu ditu: adibidez, iragan maiatzetik gobernuz kanpoko erakundeen ontziek ezin dute Italian porturatu. Ondorioz, gutxitu egin da Mediterraneo itsasoko salbamendu-ontzien kopurua. Bestalde, harrera-zentroak itxi egin ditu, eta horren eraginez, iheslari askok, kalean egiten dute lo. Gainera, adin txikiko errefuxiatuen babeserako programak bertan behera utzi ditu. Beraz, oso egoera iluna bizi dugu, migratzaileen aurkako kriminalizatze-kanpaina bat da, eta Europa guztira zabaltzen ari da, zoritzarrez.